

SARS-CoV-2 koronabirusaren kutsapena murrizteko neurriak



HOTELAK ETA TURISMO APARTAMENTUAK Ildoak eta gomendioak

ETKI institutuak eratutako Teknikarien Batzordeak eraturia Hotel eta Turismo Apartamentuen Espainiako Konfederazioaren (HTAEK) eta lurraldeko sektoreko erakundeen, hotel kate eta enpresen lankidetzarekin, eta Laneko Prebentzio Zerbitzuaren Espainiako Elkartarekin (AESPLA), PRLInnovación elkartearekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin adostuta.

Turismoko Estatuko Idazkaritzarekin, Autonomia Erkidegoekin eta Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioarekin (EPBF) koordinatuta.

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	4
1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.....	4
2. BALDINTZA ETA DEFINIZIOAK.....	4
2.1 COVID-19	
2.2 Arriskua	
2.3 Arriskuaren kudeaketa	
3. ARRISKUA KUDEATZEKO BETEKIZUNAK.....	5
3.1 Betekizun orokorrak	
3.2 Segurtasun- eta osasun-batzordea / Kudeaketa-batzordea	
3.3 Jarduera hasi aurretiko esku-hartzeak	
3.4 Hotelerako neurri orokorrak	
3.5 Langileentzako babes-neurriak	
3.6 Informazio-neurriak	
4. ZERBITZU-BETEKIZUNAK.....	12
4.1 Harrera eta abegi zerbitzua	
4.2 Kafetegi/jatetxe zerbitzua	
4.3 Alojamendua	
4.4 Baterako erabilerako zonaldeak	
5. ANIMAZIO-BETEKIZUNAK.....	16
6. EKITALDIETARAKO BETEKIZUNAK.....	16
7. GARBIKETARAKO BETEKIZUNAK.....	17
7.1 Garbiketa plana	
7.2 Sukaldeen garbiketarako betekizunak	
7.3 Gelen garbiketarako betekizunak	
7.4 Ehunen garbiketa	
8. MANTENU-BETEKIZUNAK.....	19
8.1 Prebentziozko mantenurako plana	
BIBLIOGRAFIA.....	20
ERANSKINAK.....	21

0. SARRERA

Turismoa da gure herrialdean industria nagusia. Haatik, egungo COVID-19 testuinguruan instalazioak berrirekitzean erkidegoan kutsadura-arriskuak gora ez egiteko protokoloak ezarri behar dira derrigorrez, sektore horretan lan egiten duten pertsonentzako babes-neurri ezinbestekoak ezartzearekin batera. Arrazoi hori dela medio, Turismoko Estatuko Idazkaritzak COVID-19 gaixotasunaren aurrean osasun protokolo bat koordinatzea adostu du Autonomia Erkidegoekin itxialdi-neurriak arindu ahala turismoaren sektorearen berririkiera prestatze aldera. Turismo arloko azpisektore edo jarduera bakoitzaren betekizunak jasotzen dituen protokolo homogeneo hori eratzeko, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren laguntza izan da, tresna hau garatu duena hotel eta apartamentu turistikoetara beren antolakuntzetan dauden arriskuak identifikatu eta aztertzen laguntzeko, eta baita zerbitzuari, beren instalazioei eta bertako langileei dagokienez hobekuntza praktikoak txertatzeko, modu horretan, birusari aurre egiteko asmoz.

1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Dokumentu horretan, indarreko legeriaren kalterik gabe, hotel, apartamentu turistiko, ostatu eta pentsioetan horiek berrirekitzen direnean SARS-CoV-2 birusaren kutsadura-arriskua gutxiagotzeko aplikatzeko jarraibide eta gomendioak jasotzen dira.

Zerbitzu ezberdinak gobernuak argitaratutako egutegiaren arabera edo etorkizunean egon litezkeen aldaketekin bat etorritik jarriko dira martxan.

2. BALDINTZA ETA DEFINIZIOAK

2.1 COVID-19

COVID-19 gaixotasun bat da, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindakoa, lehendabizikoz 2019ko abenduan hautemandako birusa. Hauek dira gaixotasun horrek sorrarazten dituen sintoma arruntenak: sukarra, eztula eta arnas-faltaren sentazioa. Beste zenbait sintoma gainera daitezke: nekea, minak, sudurretik tanta-jarioa, eztarriko mina, buruko mina, beherakoa, gonbitoak. Pertsona batzuek usaimena edo dastamena galtzen dituzte.

2.2 Arriskua

Pertsona bat SARS-CoV-2 koronabirusarekin kutsatzeko arriskua.

2.3 Arriskuaren kudeaketa

Arriskuari dagokionez antolakuntza zuzendu eta kontrolatzeko jarduera koordinatuak.

(UNE-ISO 31000:2018)

3. ARRISKUA KUDEATZEKO BETEKIZUNAK

3.1. Betekizun orokorrak

Hotelak konpromiso irmoa hartu behar du arriskuaren kudeaketarekiko, hura gutxiagotzera bideratutako neurriak modu sistematikoan txertatzeko prozesua gidatuz. Arriskuaren kudeaketa establezimenduaren prozesu guztietara gaineratu behar da; hori dela eta, prozesu ezberdinak elkarren artean koordinatuta egon behar dira.

Arriskuen ebaluazioa oinarritzat hartuta, hotelak kontingentzia-plan bat eratuko du, COVID-19 gaixotasunaren bidezko kutsaduraren arriskua murrizteko hartuko dituen neurri zehatzak xehetasunez jaso behar dituena. Prebentziozko jarduera hori jarduerara itzuli aurretik egiteko ahalegina egingo da.

Legeak hala eskatuta, arriskuen ebaluazioaren egokitzapena taxutzeko prozesuan eta horren ondoriozko segurtasun eta osasun protokoloetan, prebentzio arloko delegatuei edo langileen ordezkariari kontsulta egin behar zaie, nahiz eta komenigarri izango zatekeen kontingentzia-plan hori enpresaren, osasun batzordearen edo segurtasun batzordearen (edo, halakorik ez balego, kudeaketa batzordearen) adostasunaren ondorio izatea.

3.2. Segurtasun- eta osasun-batzordea / Kudeaketa-batzordea

Segurtasun eta Osasun Batzorderik ez duten enpresetan, enpresak arriskua kudeatzeko batzorde bat osatu behar du, langileen legezko ordezkarietara barneratuko duena; edozein kasutan, batzorde horren kudeaketa eta zereginetan Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea beteko da uneoro.

LAPL legearen arabera subjektuak dituen arriskuak identifikatu eta ebaluatuta, batzordeak beregain hartuko du COVID-19 gaixotasunaren bidezko higiene eta osasun arriskuak gutxiagotzeko estrategien zehaztapena eta erabakiak hartzea.

Zehazki:

- Bete beharreko helburuak ezarriko ditu.
- Erabaki onenak hartzea ahalbidetzeko informazioa batzeko mekanismoak finkatuko ditu (kontsulta agintariei, langileei, espezialistei, etab.).
- Koordinatzeko modua finkatuko du (batzordeko kideen artean, langileen ordezkariekin, LAP planeko zerbitzuarekin edo funtzio horiek dituen pertsonarekin enpresa atxiki den prebentziozko antolakuntzaren modalitatearen arabera, langileekin, arlo bakoitzean eskuduntza duten agintariekin, hornitzaileekin eta azpikontratekin).
- Babes-neurri beharrezkoak diseinatuko ditu, kontingentzia-plan batean jasoak.
- Kontingentzia-plana txertatzeko modua planifikatuko du.
- Kontingentzia-plana enpresaren tamaina eta konplexutasunaren arabera txertatuko du, eta hura betetzen den gainbegiratuko du, haren eraginkortasuna balioetsiz eta, beharrezkoa balitz, hura aldatuz, erakutsitako eraginkortasunaren arabera.

Kontingentzia-plan horrek hauek gaineratu behar ditu, gutxienez:

- Erabakiak hartzera bideratutako prozesuak aldatzeko aukera, beharrezkoa balitz.
- Agintari eta arduren esleipena arriskuaren kudeaketaren esparruan.
- Giza baliabideen eta baliabide materialen esleipena, Norberaren Babeserako Ekipoen (NBE) erabileraren zehaztapena barne, laneko arriskuen prebentziotik eratorritako premiak kontuan izanik eta arau honetan eta araudi aplikagarrian ezarritakoaren kalterik gabe.
- Langile edo bezeroen batek COVID-19 gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak agertzen baditu, jardute-protokolo bat zehaztu eta txertatzea, edozein kasutan laneko arriskuen prebentziorako ildoak nahiz osasun agintarien ildoak betez, hurrenez hurren, eta kutsatuta egon daitezkeen gainazalak garbitu eta desinfektatzeko protokoloak berrikustea aintzatetsiz.
- Osasun agintariak COVID-19 gaixotasunaren ondoriozko neurri bereziekin lotuta emandako gomendio eta jarraibideak betetzen direla, hala langileen aldetik nola bezeroen aldetik, eta arriskuen ebaluazioaren ondorioz eraturako kontingentzia-planean barneratzen diren neurri gehigarriak betetzen direla gainbegiratzea.

3.3. Baliabide materialak

Hotelak beharrezkoak diren ekintzak finkatu behar ditu, arriskuen ebaluazioaren emaitzaren eta diseinatutako kontingentzia-planaren arabera aurreikusitako beharrezko baliabideak hornitzekoak, edozein kasutan osasun agintarien gomendioak kontuan izanik (esate baterako, maskarak, eskularruak, etab.).

Hotelak baliabide materialak hornitzeko egon daitezkeen murriztapenak eta murriztapen horietatik eratorrita zerbitzuetan egon litezkeen mugak aintzatetsi behar ditu, hala badagokio, hasieran proposatutakoez aparteko aukerak balioetsiz, betiere, langileen legeko ordezkariekin adostuta, eta egingarri izanik.

Uneren batean baliabide materialak falta direla hautematen bada, kudeaketa batzordeak aztertu eta erregistratu egin beharko du antolakuntza turistikoa eta hartako langileak babesteko eskumeneko agintarien aurrean, baliabide eta neurri alternatiboak aztertu eta proposatzeko aukera izanik.

3.4. Hotelerako neurri orokorrak

3.4.1 Betekizun orokorrak

Hotelaren eginbeharrak:

- Lanketak eta lan-prozesuak planifikatzea, osasun agintariak ezarritako segurtasunezko distantzia bermatzeko moduan; lanlekuan lanpostuen kokapena, pertsonen joan-etorriaren antolaketa eta espazioen banaketa (altzariak, apalategiak, pasilloak, etab.) egokitu egin behar da beharrezkoa balitz. Hori ezinezkoa baldin bada, kontaktu bidez kutsatzeko arriskua ekiditeko neurri alternatiboak hartuko dira. Lanean txandak baldin badaude, ahal baldin bada, txanda berdinetan langile berdinak elkartzeko moduan planifikatu behar dira. Halaber, langileek arropa aldatu behar badute, segurtasunezko distantzia hori ziurtatzeko espazio bat prestatu beharko da edo langileen aldageletan gehienezko edukiera finkatu beharko da, halakorik balego. Gainera, barneko bilkuretan pertsonen arteko distantzia mantendu beharko da.
- Lan ingurunean COVID-19 gaixotasunaren aurrean ahulak diren langileen presentzia ebaluatzea, eta langile horientzako segurtasun-neurri espezifikoak zehaztea.
- Ukipenik gabeko termometro bat izatea.

- Ukipen bidezko (aztarnak, digituak) ordutegiaren kontrolerako metodoa desinfektatzea ziurtatu ezin bada, halakorik balego, langile ezberdinen aldetik gainazal bera erabiltzea ekiditeko ordutegiaren kontrolerako metodo bat txertatu beharko da. Erabilera bakoitzaren ondotik desinfektatzearen alde egiten bada, desinfektatzeko soluzio bat erabilgarri izatea ziurtatu beharko da.
- Langileen babes egokia ziurtatzea, eskuak ura eta xaboia erabiliz garbitu ahal izatea ahalbidetuz eta, hori ezinezkoa baldin bada, desinfektatzeko soluzioa erabiliz.
- Eskuen higiene egokirako denbora eta moduak ahalbidetzea.
- Aldez aurretik laneko arriskuak ebaluatu ostean NBE ekipo egokiak helaraztea. Zerbitzuren bat azpikontratatuta balego, hotelak langileek beharrezkoak diren norberaren babeserako ekipoak dituztela gainbegiratuko du.
- Lana garatzen den instalazioetan eta espazio partekatuetan erabilera-arauak ezartzea segurtasunezko distantzia mantentzeko (adibidez, igogailuetan, jangeletan, sarbide edo baterako zonaldeetan, aldageletan).
- Gutxienez egunero eta, ahal denean, maiztasun handiagoz, establezimenduko eremu ezberdinak aireztatzea.

Gainera:

- Jarduera guztietan pertsonen arteko segurtasunezko distantziak errespetatu behar dira. Horretarako, eta beharrezkoa denean, edukieren gaineko dagokion kontrola egin beharko da. Hori ezinezkoa baldin bada, beharrezkoak diren neurriak eta babeserako ekipoak bermatu behar dira.
- Hotelak, uniforme motaren arabera, aplikatu beharreko garbiketa mota eta maiztasuna zehaztu behar ditu. Uniformea lanaldian soilik erabili behar denez, establezimendua langileen laneko arropa garbitzeaz ardura dadila gomendatzen da, berezko lentzeria garbitzeaz batera. Horiek 60°C-tik gorako tenperaturan garbitzea ziurtatu behar da. Langileen uniformeak langileen etxean garbitzen baldin bada, establezimendua garbiketa 60°C-tik gorako tenperaturan egin behar dela jakinarazi behar die langileei. Laneko arropa poltsa batean sartu eta ondoren itxi egin behar da, langileak arropa hori etxera eramaten baldin badu. Uniformeak tenperatura horretan garbitu ezin badira, behar bezala desinfektatu beharko dira.
- Langileei prestakuntza eman beharko zaie erabiltzen dituzten maskara, eskularru eta, oro har, NBE ekipoan erabilera eta mantenu egokiarekin lotuta, eta prestakuntza horren erregistroak jaso beharko dira.

3.5 Langileentzako babes-neurriak

3.5.1 Betekizun orokorrak

Langileek diseinatutako kontingentzia-plana ezagutu beharko dute eta, modu espezifikoan, arriskuaren kudeaketaren esparruan dituzten ardurak zein diren jakin behar dute.

Zehazki, hauek dira langileen eginbeharrak:

- Informazio argi eta ulergarria izatea, eta txertatzen diren neurri espezifikoaren gaineko prestakuntza zehatz eta eguneratua.
- Fisikoki elkar ukituz agurtzea ekiditea, eskua ematea barne, hala langileen artean nola bezeroekin. Ahal den guztietan segurtasunezko distantzia errespetatu egin behar da.
- Lanpostu bakoitzeko arriskuaren ebaluazioari erreparatzea, maskara erabiltzea derrigorrezkoa den ala ez eta hark garatzeko lanketaren arabera zein ezaugarriak izan behar dituen (adibidez, higienikoa, kirurgikoa) baldintzatuko baitu ebaluazio horrek, ezaugarri horien arabera erabilera-denbora zehazteaz gainera.
- Norberaren higienarako edozein hondar (bereziki, erabili ostean botatzeko zapiak) eta NBE ekipoak berehala horretarako ipinitako, eta eskuz eragiten ez diren, paperontzi edo edukiontzietara botatzea.
- Doministiku egin, zuntz egin, eztul egin edo kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu ondoren (dirua, establezimenduko kartak, etab.) eskuak xehetasunez garbitzea. Haatik, eskuak garbitzeko protokoloa egokitu egin behar da instalazioen ezaugarrien arabera, esate baterako, eraikinaren ezaugarri fisikoak direla medio ezinezkoa denean langileek eskuak aldizka garbitzea. Kasu horretan, desinfektatzeko soluzioa erabiltzen dela ziurtatu beharko da.
- Erabilera pertsonaleko objektuak (betaurrekoak, mugikorak, etab.) maiztasunez desinfektatzea lanaldi osoan zehar, ura eta xaboia erabiliz hori zilegi denean edo, ezinezkoa baldin bada, desinfektatzeko soluzio bat baliatuz, eta baita lanpostuko elementuak ere (pantaila, teklatua, sagua, etab.) txanda aldaketarekin. Ekipo elektronikoak desinfektatzeko produktu espezifikoak erabili behar dira, zapi batekin edo desinfektatzeko paper-zapi bereziekin aplikatuta.
- Ez dira beste langileen laneko ekipo edo gailuak partekatu behar. Ekipo edo gailu jakin batzuk txandaka erabiltzen baldin badira, hotelak erabileren artean garbitu eta desinfektatzeko jarraibideak ezarri behar ditu kutsatzeko arriskua murrizte aldera.

- Egunero laneko arropa garbia jantzi behar da.

3.5.2 Solairu eta garbiketa eremurako betekizun bereziak

Solairu eta garbiketen eremuan norberaren babeserako ekipo egokia erabili behar egoera bakoitzean aintzatesten den arrisku-mailaren arabera. Langileek, gutxienez, maskara eta eskularruak erabili behar dituzte. Gela bakoitza garbitzeko eskularruak aldatzea gomendatzen da.

Erabilitako materialak eta babeserako ekipoak garbitu ondoren modu seguruan botako dira, ondoren eskuak garbituz. Tapadun kuboak ipiniko dira horiek bota eta ondoren kudeatzeko.

Eskularru eta maskarak horien balio-bizitzaren eta erabilera-baldintzen arabera bota behar dira.

Solairu eta garbiketaren eremuko langileak ez dira geletan zerbitzua ematera sartuko bezeroa barnean den bitartean, arrazoi justifikaturik egon ezean.

Hemen deskribatutako zerbitzuak azpikontratatuak baldin badira, enpresa nagusiak gainbegiratu du langileek beharrezkoak diren norberaren babeserako ekipoak dituztela eta ezarritako prozeduren arabera jarduten dutela.

3.5.3 Norberaren erabilerarako instalazioak

Jangelak, kantinak, aisiarako lokalak edo atsedenerako guneak

Langileen jangela ipintzen baldin bada, erabiltzen den bitartean segurtasunezko distantzia ziurtatzeko neurriak txertatu beharko dira, gehienezko edukiera finkatuz. Halaber, jangelako aretoen, atsedenerako aretoen edota kanten erabilera arautu egin beharko da, horien edukiera finkatzean segurtasunezko gutxienezko distantzia mantendu ahal izatea kontuan izanik, eta higiene-egoera egoki bat ahalbidetuz.

Hori ziurtatzeko, besteak beste, halako neurriak hartu ahalko dira:

- Jatorduetako txandak eta atsedeen uneak areagotu eta txandakatzea, horietan ahalik eta pertsona kopuru gutxiena egon dadin elkarrekin. Horrek horien iraupen eta banaketa aldi baterako egokitu behar izatea ekar dezake.
- Aulki kopuru jakin bat kentzea, geratzen diren aulkiekin segurtasunezko distantzia soziala errespetatzen dela ziurtatzeko.
- Vending eta kafe makinak baleude, horietan botoak sakatu aurretik eta ondoren eskuak garbitzeaz oroitarazteko kartelak ipintzea.

- Ez da sukaldeko edo gailu edo tresneria partekatu behar.

Aldagelak eta komunak

Segurtasunezko distantzia mantentzeko neurri egokiak hartu behar dira eta garbiketa-neurriak indartu.

Kaleko arropa plastikozko poltsetan edo arropa gordetzeko zorroetan gorde behar da, kaleko arropak eta lanekoak elkar uki ez dezaten. Horretarako, takilak instalatzea gomendatzen da.

Maiatzaren 3ko SND/386/2020 Aginduaren arabera, baterako erabilerarako komunak egunean gutxienez 6 aldiz garbitu eta desinfektatu behar dira.

3.6. Informazio-neurriak

Segurtasun eta osasun/kudeaketa batzordeak eraturako kontingentzia-plana langileen ordezkari (halakorik balego), langileei (hura behar bezala abiarazi eta mantentzeko) eta hornitzaileei jakinarazi behar zaie; eta bezeroei zuzenean eragiten dien eta aplikatu behar dituzten neurrien berri eman behar zaie (adibidez, maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, segurtasunezko distantzia, etab.).

Bezeroak erreserba berretsi aurretik establezimenduak zerbitzuaren baldintzen eta ezarritako prebentziorako neurrien berri eman behar dizkio, hark onar ditzan.

Establezimenduan bertan informazio-neurriek izan behar dute:

- Kartelak, zentroan txertatutako prebentziozko neurriak eta bezeroek betetzeko jarraibideak adierazita.
- Segurtasunezko distantzia errespetatzen duten posizioen aipamena, marka edo neurri alternatiboak erabiliz (adibidez, harreran, jatetxearen sarreran, etab.).
- Osasun laguntza, suhiltzaile, udaltzaingo eta zonaldeko polizia nazionalaren zentroeiei buruzko informazioa, ordutegiak, larrialdietarako arretarako telefono-zenbakiak eta horien kokapena adierazita.

Ipintzen diren kartelak atzerriko hizkuntza batean idatzita agertu behar dira gutxienez (bezeroen jatorrizko herrialdeak kontuan izanik).

Hotelak kontingentzia-planen ondorioz hartzen diren neurriak betetzeko beren kolaborazioa eskatu behar die enplegatu eta langileei eta prebentziozko nahiz higieneko neurriei eta babeserako materiala behar bezala erabiltzeari buruzko beharrezko informazioa helarazi behar die bere langileei.

Alojamenduko kanpoko zerbitzuetako hornitzaileei dagokienez, prebentzio arloan azarri diren neurri aplikagarriei buruzko informazioa eman behar zaie.

4. ZERBITZU-BETEKIZUNAK

4.1. Harrera eta abegi zerbitzua

Prebentziozko neurri hauek bete behar dira:

- Harrera-guneko gehienezko edukiera zehaztu behar da eta bezero eta langileen arteko distantzia ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri behar dira. Harrerako langileekiko segurtasunezko distantzia mantendu ezin baldin bada, harrerako langileen babesa ziurtatzeko elementu fisikoak instalatzea gomendatzen da, erraz garbitu eta desinfektatzekoak. Halako elementu fisikorik ere izan ezean, langileek maskara erabili beharko dute.
- Harrera eta abegi gunean desinfektatzeko soluzio bat izan behar da erabilgarri.
- Boligrafoak partekatzea saihestu behar da eta, hala badagokio, utzitakoak desinfektatu egin behar dira erabili ondoren.
- Bezeroen artean segurtasunezko gutxienezko distantzia ziurtatu behar da eta distantzia adierazteko markak ipini behar dira, ikusteko moduan, pilaketak ekiditeko.
- Txartel edo bestelako bitarteko elektroniko batzuekin ordaintzea sustatu behar da, contactless lehenetsiz. Hori alojamenduko zerbitzu guztietarako da aplikagarri.
- Ukipena dagoen bakoitzean salmenta-terminala desinfektatu egin behar da.
- Mostradoreak gutxienez egunero garbitu eta desinfektatu behar dira, bezero gehiago edo gutxiago izan diren kontuan izanik.
- Txartel edo giltzak egonez gero, desinfektatzailea duen ontzi batean utzi behar dira egonaldi bakoitzaren amaieran edo horiek erabiltzen diren bakoitzean harreran gordetzen baldin badira.
- Informatika-ekipoa eta beste edozein erabilera-elementu (adibidez, telefonoa) laneko txandaren hasieran eta amaieran garbitu eta desinfektatu beharko da, norberak erabiltzeko aurikular eta kaskoak izatea gomendatzen delarik.

Establezimenduen sarreran desinfektatzeko alfonbrak ipintzea gomendatzen da.

Gelak esleitzean desinfektatzeko eskatzen diren higiene-neurriak bermatu beharko dira.

Langileek bezeroen ekipajea garraiatzeko zerbitzua eskaintzen dutenean, segurtasun-baldintzetan egin beharko dute. Horretarako, langile horiek behin erabili ostean botatzeko eskularruak edota desinfektatzeko paper-zapiak izango dituzte erabilgarri, helduleku edota eskutokiak garbitzeko.

Aparkalekuari dagokionez, langileek bezeroen autoak manipulatzeko ekidin behar da.

4.2. Kafetegi/jatetxe zerbitzua

4.2.1 Betekizun orokorrak

Establezimenduak "Jatetxearen zerbitzuetan SARS-Cov-2 koronabirusaren bidezko kutsadura murrizteko neurriak" izeneko protokoloa (ICTE, 2020) bete beharko du, kafetegia/jatetxe zerbitzuan aplikatzekoa.

4.2.2 Zerbitzuaren tipologia

Zerbitzuaren tipologiaren hautaketak bezeroaren manipulazioa eta esku-hartzea murriztea izan behar du helburutzat, kutsatzeko arriskua prebenitzeko. Buffet erako tipologiaren kasu zehatzean, formula jakin batzuk txertatu behar dira, esate baterako, babes-pantailak hornitutako buffet lagundua, plater indibidualekin edota dosi bakar estaliekkin (horiek ere babes-pantailaz hornituta), etab.

Halaber, zerbitzuko tipologia guztietatik baterako erabilerako elementu eta ekipo guztiak kendu egin behar dira (ozpin-ontziak, gatz-ontziak, olio-ontziak, edari-makinak, azukre-ontziak, etab.), eta baita edozein elementu apaingarri ere.

Gainera, instalazio mota kontuan izanik, establezimenduak iradokitako edo aurrez zehaztutako ibilbide bat ipini beharko luke, gune jakin batzuetan pilaketak ekidin eta bezeroen arteko kontaktua prebenitzeko.

Room service zerbitzuan, zerbitzaria gelan sartzen baldin bada, eskularruak erabili behar ditu hartara sartzean zerbitzatzeko nahiz zerbitzua jasotzeko. Gainera:

- zerbitzariak maskara eraman behar du bezeroarekiko segurtasunezko distantzia mantendu ezin badu.
- sukaldeko tresneria guztia (erretiluak eta platerak estaltzeko kanpaiak barne) ontzi-garbigailuan garbituko da.
- hondakinak kanporatzeko protokolo bat zehaztu behar da, eta bezeroari haren berri emango zaio.

4.2.3. Sukaldea

Arriskuen eta Kontrol Puntu Kritikoen Analisisirako sistema bat txertatu behar da, COVID-19 testuinguruaren arabera eguneratua.

4.3. Alojamentua

Geletan, modu espezifikoa, betekizun hauek bete behar dira:

- Geletan ehun kopurua (alfonbrak barne) objektu apaingarriak eta kosmetika produktuak murrizteko aukera aztertu behar da, zehaztutako kontingentzia-planaren arabera jarduteko.

- Komuneko paperontziek tapa, poltsa bikoitza eta eskuzkoa ez den eragingailua izan behar dituzte.
- Armairuetako manta eta burkoak babestuta egon behar dira.
- Gelan bertan ile-lehorgailua baldin badago, bezeroa ateratzen denean garbitu egin behar da (iragazkia barne).
- Pertxak, prezintatuta eskaintzen ez baldin badira, desinfektatu egin behar dira bezeroa ateratzen denean.
- Plantxa-zerbitzua mugatu egin behar da.

Gelako paperontzia kentzea gomendatzen da edozein zapi, maskara eta abar tapadun paperontzi bakarrean sar ez daitezen, transmisio eta manipulaziorako arriskuak gutxiagotuz.

Familia-unitatea osatzen ez duten pertsonen partekatutako gelen kasuan, segurtasun eta osasun/arrisku batzordea izango da neurri egokiak zehaztuko dituen bezeroen tipologia kontuan izanik.

4.4. Baterako erabilerako zonaldeak

4.4.1 Betekizun orokorrak

Puntu hauek bete beharko dira:

- Hotelak baterako espazio ezberdinen edukiera zehaztu behar du.
- Hotelak desinfektatzeko soluzioak izan behar ditu pasabideetan eta bezeroek asko erabiltzen dituzten instalazioetan. Komunaren irteeran desinfektatzeko soluzioa ipin daiteke.
- Baterako erabilerako komunetan lehertzeko paperen gailua edo esku-lehorgailua ipini behar da. Toallak erabiltzea ekidin behar da, baita erabilera indibidualekoak ere eta gutxienez egunean 6 aldiz garbitu behar dira.
- Paperontziak eskuzkoa ez den eragingailu batekin ireki behar dira eta barnean poltsa bikoitza ipini behar da.
- Ekitaldia egiteko espazioa nahiz animazio edo gimnasia-jarduerak egiteko espazio itxiak erabili baino 2 ordu lehenago aireztatu egin behar dira, indarreko araudia betetzen dela bermatzeko.

Gainera:

- Establezimenduak bezeroek segurtasunezko distantziak errespetatu dituzten ziurtatu behar du.

- Kontsumigarriak (xaboia, paperezko zapiak, etab.) amaitzen direnean berriro ipintzen direla ziurtatu behar da.
- Paper, gel eta xaboi gailuak garbitu egin behar dira aldian behi, erabilera-maila kontuan izanik.

Establezimenduak ardua berezia izan behar du baterako erabilerarako zonaldeak garbitu eta desinfektatzeari dagokionez.

4.4.2 Gimnasioak

Puntu hauek bete behar dira:

- Instalazioaren edukiera zehazterakoan segurtasunezko distantzia betetzen dela ziurtatu behar da (baita makinaren artean ere) eta, hala badagokio, erabilitako toallak uzteko espazio bat prestatu behar da. Pedal bidez irekitzen diren eta plastikozko poltsaz hornituta dauden tapadun kuboak erabiltzea gomendatzen da.
- Eskola kolektiboetan edo taldekoetan 2*2 erako espazio bat bermatu behar da irakaslearekiko. Kokapenak zoruan adierazi behar dira. Elkar ukitzea eskatzen duten ariketak saihestu egin behar dira. Aire zabalean egin daitezkeen jarduerak espazio irekietara eramango dira.
- Eskola kolektiboetako saioen artean jarduerarik gabeko denbora-tarte bat egotea ziurtatu behar da aretoak garbitu eta desinfektatzeko emandako saio bakoitzaren ostean eta, modu horretan, langile eta bezeroen segurtasuna bermatzeko. Edozein kasutan, aretoak egunean hainbat aldiz aireztatu/egurastuko dira.
- Baterako erabilerako iturriak prezintatu egin behar dira, jario jarraitukoak ez badira, edo modu automatikoan edo pedal bidez abiarazten ez badira.
- Kirol ekipamendu guztietan toalla erabiltzeko eskatu behar zaie erabiltzaileei.
- Bezeroek erabiltzeko makina bakoitza erabili ostean, garbitu eta desinfektatu egingo da. Gauza bera aplikagarri izango da gimnasioko baterako elementuetarako (adibidez, pisuk, fitness pilotak edota halterak). Horiek garbitu eta desinfektatzea ziurtatu ezin baldin bada, kendu egin beharko dira.

Halako instalazioetan segurtasunezko distantzia bermatu ezin bada, instalazioak aldi baterako ixtea eta bezeroei beste aukera batzuk eskaintzea (adibidez, ariketen taula pertsonalizatuak, kanpoko zonaldeetan egitekoak) gomendatzen da.

4.4.3 Igogailuak

Igogailuetako gehienezko edukiera zehaztu eta bezeroei horren berri eman behar zaie. Familia-unitate ezberdinetako pertsonen artean ez partekatze araua aplikatuko da, baldin eta maskarak erabiltzen ez badira.

4.4.4 Igerileku eta spa

Kanpoko igerilekuetan nahiz estalietan COVID-19 gaixotasunak uretan duen portaerari buruz eskatutako txosten zientifikoaren emaitzen arabera aplikatzeko jarraibide eta gomendioak zehaztuko dira.

Spa instalazioetan alojamentuak "Bainuetxeetan SARS-CoV-2 birusaren ondoriozko kutsadura murrizteko neurriak" (ICTE, 2020) bete beharko ditu, aplikatzen diren eran.

4.4.5 Haurren jolaslekuak

Eskumeneko agintariek baimenduz gero eta beti horien argibideei jarraiki, erabili ahal baldin badira, hala eremuetan nola jolas eta instalazioetan garbiketa eta desinfekzioa maiztasun gehiagoz egiteko programa bat finkatuko da. Jolas-eremuaren sarreran erabiltzeko higiene-neurriak ezarri behar dira (eskuak garbitzea edo, halakorik ezin bada, desinfektatzeko soluzio bat erabiltzea).

Haurren zainketaz arduratzen diren pertsonak higiene pertsonal arduratsua izan beharko dute, eskuak maiz garbitu edota desinfektatuz.

5. ANIMAZIO-BETEKIZUNAK

Animaziorako jarduerak diseinatzean kontuan izan beharko dira edukieraren kontrola eta pertsonen arteko segurtasunezko gutxieneko distantzia. Bestela, maskara erabili beharko da. Ahal den heinean, aire zabalean egingo dira eta objektuen trukea saihestuko da.

Animaziorako jarduerak garatzean eskumeneko agintariek parte har dezaketen pertsona kopuruari dagokionez une bakoitzean emandako araudia bete beharko da.

Edozein kasutan, animazio jardueretan erabilitako materialak desinfektatu egin behar dira saio bakoitzaren ondoren.

6. EKITALDIETARAKO BETEKIZUNAK

Eskumeneko agintariek ekitaldiak egitea baimentzen duenean eta horri dagokionez ezartzen duenaren kalterik gabe, establezimendu bakoitzak ekitaldiak egiteko guneak zehaztu beharko ditu, arriskuen gainean egindako ebaluazioa kontuan izanik.

Ekitaldiak diseinatu eta planifikatzean kontuan izan beharko dira edukieraren kontrola eta pertsonen arteko segurtasuneko gutxieneko distantzia iristean, atsedendietan, jan eta edateko zerbitzuetan eta ekitaldiaren amaieran. Segurtasuneko distantzia hori ziurtatu ezin bada, maskara eraman beharko da.

Bilkuretan materiala banatu ala ez banatzea aztertu behar da (papera, boligrafoak, ura, etab.).

7. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-BETEKIZUNAK

7.1. Garbiketa plana

Establezimenduak garbiketa- eta desinfekzio-plan bat egokitu beharko du identifikatuta arriskuen gaineko ebaluazioa kontuan izanik. Pan horretan hauek jasotzeko beharko dira gutxienez:

- Garbiketa eta berrikuspenen maiztasuna areagotzea, bereziki ukipena handiagoa den gunetan (gainazalak, eskulekuak, komunak, iturriak, biraderak, igogailuak, harrerako mostradoreak, atearak, geletako giltza/txartelak, telefonoak, urruneko mandoak, WC-a husteko botoia, babes-hesiak, aire-girotzaren kontrola, lehorgailua, ordutegia kontrolatzeko gailuak, gimnasioko makinak, barandak, room service kartak, logelako edaritegia, pertxak, etab.). Zehazki, langileen laneko eremua desinfektatu egin behar da horien txanda amaitzen denean (adibidez, harrerako mostradorea, kaxa, etab.).
- Bezeroak egon badira, baterako erabilerako guneak egunero aireztatu/egurastea.
- Gainazalak desinfektatzeko produktuekin garbitzea.
- Desinfektatzeko garbiketa-produktuak segurtasun-baldintzetan erabiltzea, esate baterako, lixiba bidez prestatu berri den diluzioa (kloroaren kontzentrazioa 1 g/L, lixiba bidezko 1:50 diluzioz prestatua, 40-50 gr/L kontzentrazio batekin). Halaber, eraginkorrak dira % 62-71 etanol edo % 0,5 peroxido hidrogeno diren kontzentrazioak, minutu batean. Era berean, baimendutako eta eraginkortasun frogatua duten bestelako metodo alternatibo batzuk erabil daitezke. Edozein kasutan, erabiltzen diren desinfektatzaileen eraginkortasuna ziurtatu egin behar da eta produktuetako segurtasun-datuen fitxetan ipinitakoa betez erabiliko dira.
- Gelak segurtasun-baldintzetan garbitzea.

Garbiketa-orgak horiek erabili diren txanda aldatzen den aldiro garbitu eta desinfektatu behar dira.

Baterako erabilerako guneetan dauden paperontziak segurtasun-baldintzetan bildu behar dira, poltsak itxita/zigilatuta geratzen direla ziurtatuz, eta hondakinak biltzeko puntura eramango dira.

Egindako garbiketen egunerokoa erregistratuta geratu behar da.

Kontingentzia-planean lanaren plangintzan eta antolakuntzan beharrezkoak diren garbiketa-neurrien inpaktua zehaztu beharko da, eremu horrek testuinguru horretan duen garrantzia berezia dela eta.

7.2. Sukaldeen garbiketarako betekizunak

Arriskuen eta Kontrol Puntu Kritikoen Analisirako sisteman zehaztutako irizpideak aplikatuko dira, COVID-19 testuinguruaren arabera eguneratua.

Establezimenduak "Jatetxe-zerbitzuetan SARS-CoV-2 birusaren ondoriozko kutsadura arriskua murrizteko neurrien" protokoloa (ICTE, 2020) bete beharko du.

7.3. Gelen garbiketarako betekizunak

COVID-19 testuinguruan, gelak garbitu eta desinfektatzean bereziki jaso beharko da gelak egurastea, toallak aldatzea eta oheko arropak aldatzea. Hori guztiori, hotel-kategoria bakoitzaren arabera ezarritako maiztasunari jarraiki. Gainera, arreta berezia izango da honakoekin:

- Hormen, zoruen, sabaien, ispilu eta leihoen, altzarien nahiz ekipamendu eta elementu apaingarri eta funtzionalen garbiketa.
- Erabilera/kontaktu maila handiko (8.1) edozein gainazal edo ekiporen garbiketa.

Kutsadura gurutzatua ekiditeko sistema bat zehaztu behar da, arropa garbia soilik gela garbitu eta desinfektatu ondoren ipiniz. Arropa zikina poltsetan sartu behar da garbiketa-orgetan utzi baino lehen.

Gelan edaritegi zerbitzua ematea ekidin behar da establezimenduak ezin badu bermatu hura garbitu egingo denik bezeroen arteko denbora-tartean.

Solairu eta garbiketaren eremuko langileak ez dira geletan zerbitzua ematera sartuko bezeroak gelatik irten ez badira, ezohiko inguruabarrak salbuetsita. Aldez aurretik neurri horren berri emango da.

“ISO 22483 Turismo eta Zerbitzu Lotuak – Hotelak - Zerbitzua Emateko Betekizunak” arauan gelak garbitzeko prozesuan kalitate-betekizunak zehazten dira.

7.4. Ehunen garbiketa

Betekizun hauek bete behar dira:

- Ehun "zikinak" bildu, poltsa batean sartu eta poltsa itxi egin beharko da garbitegian tratatu arte.
- Zikin dauden ehunak astintzea ekidin behar da. Lentzeriaren kasuan, gela edo komuneko zoruan uztea ekidin behar da.
- Ehun "zikinak" manipulatu ostean, langileek eskuak garbitu behar dituzte.
- Ehun "zikinak" >60°C-ko tenperaturan garbitu behar dira. Garbitegi-zerbitzua kanpotik egiten bada, zerbitzuko hornitzaileari gutxienez eskatzen den tenperatura jakinarazi beharko zaio.

8. MANTENU-BETEKIZUNAK

8.1 Prebentziozko mantenurako plana

Protokolo espezifiko bat aplikatu beharko da mantenuko langileak gelan bezeroa bertan den bitartean soilik behar-beharrezkoa denean sar daitezten. Protokolo horretan honakoa jaso beharko da gutxienez:

- Mantenuko langileak lanpostuko arriskuen gaineko ebaluazioaren emaitzaren arabera zehazten den norberaren babeserako bitartekoekin babestu beharko dira.
- Behin laguntza edo konponketa amaitzean, langileek NBE ekipoak kontingentzia-planean zehaztutako moduan kendu eta botako dituzte, eta ondoren eskuak garbituko dituzte. Bezeroa gelan baldin badago haren presentzia ezinbestekoa delako, hari maskara ipintzeko eskatu beharko zaio mantenuko langileak gelan dauden bitartean, betiere, segurtasunezko gutxieneko distantzia ziurtatu ezin bada.
- Edozein kontaktu fisiko ekidin behar da.

Modu espezifikoan, aire girotuko sistema aldizka gainbegiratu egin behar da, bereziki iragazki eta sareten garbiketari dagokionez.


BIBLIOGRAFIA

- [1] SARS-CoV-2 koronabirus bidezko kutsadura murrizteko neurriak
- [2] ISO 22483 Turismoa eta lotutako zerbitzuak. Hotelak. Zerbitzua emateko betekizunak
- [3] UNE-ISO 22000:2018 Elikagaien kaltegabetasuna kudeatzeko sistemak. Elikadura-kateko edozein antolakuntzarako betekizunak.
- [4] UNE 167013. Ostalaritza. Jatetxe-zerbitzuak. Zerbitzua emateko betekizunak.
- [5] UNE-ISO 31000:2018 Arriskuaren kudeaketa. Ildoak.
- [6] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Merkataritzaren sektoreko establezimenduetarako jardun onen gida.
- [7] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Turismoaren sektoreko establezimendu eta langileentzako Jardun Onen gida.
- [8] Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa (2020). Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuetarako jardute-prozedura, COVID-19 gaixotasunaren eraginpean egotearekin lotuta.
- [9] Osasun Ministerioa (2020). Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuen jardute-prozedura, SARS-COV-2 birusaren aurrean.
- [9] Bainuetxeetan SARS-CoV-2 birusaren bidezko kutsadura murrizteko neurriak (ICTE, 2020)

I. ERANSKINA:

OME-K ESKUAK GARBITZEKO EMAN DITUEN GOMENDIOAK

Nola **garbitu** eskuak?

 Prozedura osoaren iraupena: **40-60 segundo**.



0 Busti eskuak urarekin.



1 Jarri esku-ahurrean eskuen azalera osoa estaltzeko adina xaboi.



2 Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin.



3 Igurtzi eskuineko esku-ahurra ezkerreko eskugainarekin, atzamarrek korapilatuz, eta alderantziz.



4 Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin, atzamarrek korapilatuta dituzula.



5 Igurtzi esku bateko atzamarren gainaldea beste esku-ahurrearekin, atzamarrei helduta.



6 Igurtzi ezkerreko atzamar lodia eskuineko esku-ahurraren barruan, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



7 Igurtzi eskuineko eskuko atzamarren punta ezkerreko esku-ahurraren kontra, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



8 Eskuak uretatik pasatu.



9 Lehortu behin erabiltzeko toalla batekin.



10 Erabili toalla hori iturria ixteko.



11 Zure eskuak seguruak dira.



Osasunaren
Mundu Erakundea

Pazientearen segurtasuna

UNA ALIANZA MUNDIAL PARA UNA ATENCIÓN MÁS SEGURA

SAVE LIVES
Clean Your Hands

II. ERANSKINA: NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI.

MASKARAK

Industria eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiaren apirilaren 23ko Ebazpenaren arabera, zeina COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erabiltzeari buruzkoa den, ekipamendu batek, jakinarazitako erakundearen EB ziurtagiria ez badauka (fabrikatzailearen adostasun-adierazpenarekin eta produktuari/ontziari CE markaketarako eskatzen zaion gainerako informazioarekin batera), merkatua zaintzeko agintaritzaren aldi baterako baimena beharko du salbuespenez hornitu/merkaturatu ahal izan dezaten (Ebazpenaren 1.2. zenbakia).

Oro har, behin erabiltzeko NBEak erabiltzea da gomendioa, edo, hala izan ezean, fabrikatzailearen gomendioei jarraikiz erabili ondoren desinfekta daitezkeenak erabiltzea.

NBEak hautatzean, erabiltzaileak ahalik eta gutxien gogaitzea eta gehieneko babesa ematea bermatu behar da, eta, horretarako, oso garrantzitsua da erabiltzaileari behar bezala egokituko zaizkion neurria, diseinua edo tamaina aukeratzea.

Agente biologikoari atek itxi nahi bazaizkio, ezinbestekoa da NBEak behar bezala jartzea, baina ondo jartzea bezain garrantzitsua da behar bezala kentzea, eremu kutsatuak ukitzea edota agente infekziosoa hedatzea saihesteko.

NBEak modu seguruan bota behar dira, hondakinen edukiontzian (eta ez birziklatzekoetan) deuseztatuko diren poltsa itxietan.

Maskarak

COVID-19aren epidemiaren testuinguruan, lan-inguruneetan maskara higienikoak erabiltzea gomendatzen da (ez berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0064-1 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduko erabilera mugatua dutenak, edo berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0065 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduz erabili ondoren 60°C-tan garbitu behar direnak). Halaber, maskara kirurgikoak erabili ahalko dira (UNE-EN 14683:2019), nahiz eta hobe den horiek kutsatuta dauden edo COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia daukaten langileentzat gordetzea.

Nolanahi ere, oro har, SARS-CoV-2 birusak kutsatu ahal izan dituen pertsonak edo gainazalak daudelako zantzurik ez dagoen inguruneetan, ez da zertan maskararik erabili, baldin eta segurtasun-distantzia gorde ahal bada.

Kutsatutako jendea dagoen eremuetara sartuz gero, arnas-babeserako maskarak erabili behar dira (FFPII edo FFPIII motakoak); hala ere, haiengana bi metrora baino gutxiagora hurbildu ezean, ez da beharrezkoa izango. Bestetik, maskara dualak erabili ahalko dira, zeinek NBE-en lege-xedapenak nahiz produktu sanitarioen xedapenak bete beharko dituzten.

Maskarak erabili eta kendu bitartean, inolaz ere ez da haien kanpoaldea ukituko. Era berean, maskara ez da kopetan edo lepoan jarriko, eta, erabileren artean, ez da poltsikoan gordeko.

Oharra: maskara kirurgikoak eta maskara higienikoak ez dira NBEtzat jotzen.

Maskara higienikoak biztanleria orokorrarentzat

Pertsona gehienek sintomekin hartzen dute COVID-19a beste pertsona batzuegandik. Hala ere, gero eta zantzu gehiagok pentsarazten dute sintomarik ez daukaten edo sintoma arinak daukaten pertsonen birusa transmiti dezaketela. Horregatik, biztanleria orokorrak zenbait inguruabarretan maskara higienikoak erabiltzea lagungarria izan liteke birusaren transmisioa txikiagotzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da maskarak ondo erabiltzea, prebentzio-neurriak kontuan hartuta, eta komunitateko transmisioa murrizteko neurriak betetzea:



Sintomak
badauzkazu, geratu etxean eta bakartu zaitze zure logelan.



1-2 m
Gorde 1-2 metroko distantzia pertsonen artean.



Garbitu eskuak
maiz eta arreta handiz.



Ez ukitu
begiak, sudurra eta ahoa.



Estali ahoa eta sudurra
ukondo tolestuaz ezul edo doministiku egitean.



Erabili botatzeko zapiak.



Egin lan urrutitik
ahal duzun guztietan.

Maskara higienikoak produktu ez-sanitarioak dira, ahoa, sudurra eta kokotsa estaltzen dituztenak eta buruan edo belarrietan lotzen direnak.
Maskara higienikoak fabrikatzeko UNE zehaztapen teknikoak argitaratu dira:

- Berrerabilgarriak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))
- Erabilera bakarrekoak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))

NORI gomendatzen zaio erabiltzea?
Biztanle osasuntsu guztiei.



NON gomendatzen da erabiltzea?

- Lanean, erosketetan, gune itxietan edo kalean segurtasun-distantzia gorde ezin denean.
- Garraio publikoa erabiltzen denean.

Erabili ondo arrisku handiagorik ez sortzeko:

-  Garbitu eskuak jantzi baino lehen.
-  Denbora guztian, maskarak ahoa, sudurra eta kokotsa estali behar ditu. Garrantzitsua da zure aurpegira egokitzea.
-  Ez ukitu maskara jantzita daukazun bitartean.
-  Erosotasun- eta higiene-kontuak direla-eta, gomendatzen da maskara 4 orduz baino gehiagoz ez erabiltzea. Hezeten bada edo erabileragatik narriatzen bada, ordeztzea gomendatzen da. Ez berrerabili maskarak berrerabilgarriak direla adierazten ez bada.
-  Maskara erantzeko, hartu atzeko aldetik, aurrealdea ukitu gabe, bota pertz itxi batean eta garbitu eskuak.
-  Maskara berrerabilgarriak fabrikatzailearen jarraibideekin bat etorritz garbitu behar dira.

2020ko apirilaren 21ean
Kontsultatu iturri ofizialak informazioa lortzeko.
www.mscbs.gob.es
@sanidadgob

BIRUS
HELAZ
ELKARREKIN
GELDIARAZIKO
DUGU



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE SANIDAD

Maskara higienikoak biztanleria orokorrean (Osasun Ministerioa, 2020)

III. ERANSKINA:

NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI: ESKULARRUAK

Babes-eskularruek EN- ISO 374.5:2016 araua bete behar dute. Binilozkoak edo nitrilozkoak izatea gomendatzen da, baina material gogorragoak erabil daitezke, egingo den jarduerak hala eskatzen badu. Eskularruek CE markaketa eduki behar dute.

Eskularruek babes-sentipen faltsua sor dezakete; beraz, oso garrantzitsua da eskularruak erabili aurretik eta ondoren eskuak ondo garbitzea (batez ere, kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu badira).

Eskularruak erabileraren arabera adierazitako maiztasunaz aldatu behar dira, fabrikatzailearen jarraibideei jarraikiz. Edonola ere, erabilera luzatu nahi bada, produktu garbigarri bat aplika daiteke haien gainean, baina, hondamen-zeinurik agertuz gero (zuloa, urradura eta abar), aldatu egin beharko dira.

Honako hau da eskularruak eskuak kutsatu gabe kentzeko modu egokia:



Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuetarako prozedura

(Osasun Ministerioa, 2020)

Ikas ezazu behin erabiltzeko eskularruak arriskurik gabe kentzen

(Erizaintzako Elkargoa, 2020)

IV. ERANSKINA:

LANGILE INFEKTATUEKIN EDO ARRISKUDUN LANGILEEKIN NOLA JOKATU

COVID-19aren inguruko oinarrizko ezagutzak, prebentziorako aintzat hartu beharrekoak:

- Honako hauek dira COVID-19aren sintomak: eztula, sukarra eta arnasteko zailtasuna, baina, batzuetan, baita giharretako eta buruko mina ere.
- Kasuen % 80k sintoma arinak daukate, eta inkubazio-aldia 2-14 egunekoa da. Kasuen % 50 kutsapen-egunetik 5 egunera hasten dira sintomak izaten.
- Langile bat gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak edukitzen hasten bada, berehala jarriko da harremanetan autonomia-erkidegoak horretarako jarri duen telefono-zenbakiarekin edo dagokion osasun-zentroarekin, eta enpresari jakinaraziko dio. Sintomatologia lanpostuan hasten bada, berehalako arduradunari esango dio. Bestalde, establezimenduak prebentzio-zerbitzuari jakinaraziko dio, halakorik baldin badago, neurri egokiak har ditzan eta Osasun Ministerioak ezarritako jakinarazpen-betekizunak bete ditzan.
- Enpresak, berriz, infektatuta egon daitezkeen pertsonak edo infektatuekin kontaktuan egon diren pertsonak detektatuz gero jarduteko protokolo bat egin eta aplikatu behar du, «Sars-CoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» deiturikoari jarraituz.
- Langile batek, Osasun Ministerioaren gomendioen arabera, izan haurdun dagoelako, patologia kronikoak dauzkalako edo adinekoa delako, «arriskudun pertsonaren» profila baldin badu, prebentzio-zerbitzuak bere lanpostua berrikusiko du, bere lana telelan bidez egin ezin denean «prebentzioz bakartzea» gomendatu behar ote den balioesteko, lehen adierazitako prozedurari helduz.

V. ERANSKINA: SEGURTASUN-DISTANTZIA

«SARSCoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» izenekoak (Osasun Ministerioa, 2020) 2 metroko segurtasun-distantzia ezartzen du.

VI. ERANSKINA: GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO- PRODUKTUAK: BIRUZIDEN ZERRENDA

Esteka honetan kontsultatu dezakezu baimendutako produktu biruziden zerrenda osoa:

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf